

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOKO ERAKUSKETEN PROGRAMA 1998KO BUKAERA – 1999

Cristina Iglesias

(1998ko azaroak 6 – 1999ko otsailak 14)

103 aretoa eta atrioa 103rako sarrera

Erakusketak artista euskaldun honen hogeit bat eskultura eta serigrafia bilduko ditu. Cristina Iglesias Euskal Herriko eta Espainiako artisten belaunaldi berriko eskultorea da eta nazioarte-mailan ezaguna da dagoeneko.

Artista honek burdina, beira eta bestelako industria-materialak erabiltzen ditu tamaina handiko eskultura itzelen eta finenak diren giza eskalako besteen arteko oreka giltzatzeko. Iglesiasek zenbait obraren gainazala estaltzen du hostoen eta banbua bezalako beste material natural batzuen motibo grabatuekin. Garrantzia ematen die espazioari eta formari dagozkien hainbat gairi, bereziki naturan gertatzen diren forma eta ehundurekin lotzen diren neurrian, eta horrela eskulturez osatutako berezko paisajea asmatzea lortzen du.

Robert Rauschenberg: atzera begirakoa

(1998ko azaroak 21 - 1999ko martxoak 7)

104, bigarren solairua eta 301, 302, 303, 304

300 obra inguruk osatzen dute Robert Rauschenberg (AEB, 1925) Estatu Batuetako artistaren atzera begirako erakusketa hau. J. Albersen ikasle izanik bere lehen urrats sortzaileak eman zituenetik, aniztasunak markatu du bere ibilbide artistikoa. Pinturak, eskulturak, argazkigintzak, grabatuak, collageak, performanceak eta, azken batean, artearen, bizitzaren eta genero artistikoen arloak etengabe nahasteak nortasun berezi batez hornitu dute bere obra. Nortasun berri hori berehala norabide berriei lotu zitzairen eta espresionismo abstraktutik urruntzera eraman zuen.

Erakusketa honetan keinubidezko pintzelkadaz egin zituen lehen pinturretako hainbat adibide ikus ditzakegu; hauek hurbilago daude espresionismo abstraktutik, pinturari ez dagozkion zenbakiak, harri-kozkorrak eta egunkariak bezalako erreferentziak dituzten arren. Hauekin batera erakusketak ondoko garai eta estiloetako obren adibideak biltzen ditu: berrogeita hamarreko hamarkadako combine painting iraultzaileak, hiru dimentsioko irudi eta objektuekin eginiko pintura eta eskultura nahasten dituztenak; pop artera hurbildu zeneko ondorengo garaikoak eta 60ko hamarkadan berriz ere gainazal lauekin lan egitera itzuli zeneko obrak. Horiez gain, bestalde, artea teknologia berriekin, antzerkiko diseinuekin, koreografiarekin eta happening direlakoekin nahasten dituzten artelanak ikus daitezke. Erakusketa duela gutxi sortutako obrekin amaitzen da.

Durerotik Rauschenbergera: Marrazkiaren muina. Albertina eta Guggenheim bildumetako maisu-lanak.

(1999ko martxoak 9 - 1999ko maiatzak 16)

305, 306 eta 307 aretoak

Azken sei mendeetako 22 artista garrantzitsuren obra biltzen duen erakusketa hau Vienako Graphische Sammlung Albertina —paperean egindako obren fondo esanguratsuenetako eta handienetako bat— eta The Solomon R. Guggenheim Foundation delakoaren arteko harreman paregabearen emaitza da.

Obra-sorta honen komisari-lanak Thomas Krens The Solomon R. Guggenheim Foundation-eko zuzendariak eta Konrad Oberhuber Graphische Sammlung Albertina-ko zuzendariak burutu dituzte elkarrekin. Bertan bildutako obrak Alberto Durero, Rembrandt, Egon Schiele, Oskar Kokoschka, Pablo Picasso, Vasily Kandinsky, Joseph Beuys eta Robert Rauschenberg maisuen lan bikainak dira eta hauen artean erretratuak, paisajeak, alde zurreko zirriborroak eta bozetoak ikus daitezke. 18 artistaren 100 obra baino gehiago jasotzen dituelarik, Durerotik Rauschenbergera izendatutako erakusketa honek bertan erakusten den obra bakoitzaren analisi zehatza egitea eta, aldi berean, Errenazimentutik orain arteko marrazkia eta bere bilakaera historikoki ikertzea ahalbidetzen du.

Bi erakundeen altxor artistikoen aurkezpen bateratuak talentu artistikoak sei mendetan zehar izan duen garapena begiesteko aukera aparta eskaintzen du.

Eduardo Chillida

(1999ko apirilak 20 - 1999ko abuztuak 29)

201etatik 209etara aretoak

1980. urtean Eduardo Chillida atzera begirako erakusketa baten xede izan zen New Yorkeko SRGM museoan eta, orain, hogeitaz beranduago, bigarren atzerabegirako erakusketa bat Bilboko museo berrian aurkeztuko da. MNCARS delakoak antolatu duen eta komisari gisa Kosme de Barañano izan duen erakusketa honek ehunen bat obra biltzen ditu gutxi gora-behera, artistak berrogeita hamarreko hamarkadan egin zituen lehen lanetatik hasi eta gaur egun arte sortutakoetatik aukeratuak.

Igeltuz, granitoz, burdinez, zurez, marmolez, terrakotaz, altzairuz eta alabastroz egindako eskulturek; collageak; marrazkiek eta bere grabitazio originalek mundu osoan ezaguna den artista bikain honen ibilbidea aztertzeko aukera eskaintzen dute. Espazioen sorkuntzak eta erlazioak, pisuen eta masen, grabitazioaren eta lebitazioaren, linearen eta kurbaren eta ordenaren eta kaosaren arteko jokoa nabarmenduz, denboran eta espazioan gauzatzen den obra dute emaitza. Chillidak berak dioenez, denboraren eta espazioaren arteko erlazio hori da bere artearen gaia: "espazioko bi elementuek, bata negatibotzat har daitekeena eta bestea positiboa, erlazio bat ezartzen dute, nik elkarriketa izendatu dudana alegia".

Richard Serra: azken obrak

(1999ko apirilak 27 - 1999ko urriak 17)

104 aretoa

Los Angelesko Museum of Contemporary Art delakoak eta New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-ak elkarrekin antolatu duten erakusketa honek Estatu Batuetako Richard Serra artistaren azken obrak aurkezten ditu. Serraren eskulturak jadanik Sugea izeneko bere obra dagoen aretoan erakutsiko dira; horien artean aipagarriak dira Torqued Ellipses (Eclipse bihurtuak) izeneko serie berriko sei obra. Pieza berri hauek eskulturaren eta arkitekturaren printzipio tradizionalak hausten dituzte, aldi berean barrurantz eta kanporantz tolestean grabitateari eta logikari desafio eginez eta altzairu sendoa feltroa bezain malgu agertaraziz.

Hemen aurkezten diren obretako asko Frank Gehryk museoaren eraikuntzan erabili zuen ordenadore-programa berari esker egin dira. Erakusketan ikusi ahal izango da artistak Bilborekin eta bere museo berriaren arkitektoarekin duen harreman berezia. Erakusketa honen diseinua Frank Gehryrena da.

Andy Warhol: A Factory

(1999ko urriak 19 - 2000ko urtarrilak 13)
301etatik 307etara aretoak

Andy Warhol: A factory izeneko erakusketak Estatu Batuetako gaur egungo kulturaren aitzindariak, alegia Andy Warholek, eta bere zirkulu artistikoak sortutako obraren disziplina anitzeko azterketa eskaintzen du. Solomon R. Guggenheim Museum-ak eta Wolfsburgeko Kunstmuseum delakoak antolatu duten erakusketa honek Warholen obrak igarotako etapa desberdinak berrikusten ditu, esparru multimedia eta elkarreragile batean material artistiko eta kultural anitzak lehenengoz bilduz.

Erakusketak artistaren ibilbide artistikoa erakusten du bere artea garatzeko erabili zituen hiru arte-tailerren bitartez; hauek izan ziren, hain zuzen, bere ahalegin berritzaile eta sarritan ikonoklasten gune. Gainera, bere estudioak mikrokosmos sortzaile emankorrak izan ziren; bertan, Warholek eta Factoryko bere lagunek era askotako obrak sortu zituzten; artea, argazkigintza, zinema, moda, telebista eta musika landuz.

Motozikletaren artea

(1999ko azaroak 13 - 2000ko martxoak 28)
104 aretoa

Erakusketa honek motozikleta historian zehar izan dena erakusten digu, kulturaren eta diseinuaren ikono-moduan bakarrik ez, baita lorpen tekniko gisa ere. Frank Gehryk diseinatutako erakusketa hau 100 motozikletak baino gehiagok osatzen dute eta motozikletaren teknologiaren eta diseinuaren historiako eta bilakaerako hainbat une garrantzitsu erakusten ditu, beren testuinguru historiko eta kulturalean kokatuz.

Erakusketa kronologikoki dago antolatuta eta moto zaharrenarekin hasten da: Michaux-Perreauxek (1968) sortutako ibilgailu hau bizikleta bati lotutako lurrin-motore bat da funtsean. MV Augusta F4 modeloarekin (1998) ixten da erakusketa, hau da, makineria izugarri konplexua duen motozikleta modernoarenarekin.